

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Antropologia pixka bat

Dionisio Txoperena ez da *Hasiberriak* telesaileko casting ponpoxotik behin ere pasatu, baina lortu du ETB1ekoek ordubeteko erreportaia bat berari propio eskaintzea. Dionisio Txoperena, izan ere, artzain soil bat da, AEBetara hainbat seniderekin bizimodu hobeago baten bila abiatua. Eta artzain euskalduna, halako batean, sakelako telefono marka ezagun baten publizitate kanpaina erraldoiko protagonista bilakatu zen. Euskal diasporaren ordezkari ere bai, zenbaitentzat, horrexegatik joan baitziren Europako eus-



Iñaki Bizkarra kazetaria eta Dionisio Txoperena artzaia.

kaldunak Ameriketakoaren bila. Eta herenegun gauean eskaini ziguten, azkenean, Azken artzaina erreportaia. Eta dokumentalgintza generoaren mugak gainditu eta antropologiaren esparrura egin zuen jauzi Iñaki Bizkarra kazetariak, bai AEBetan, bai Euskal Herrian desagertzen ari den bizimodua agerian utziz. Nahita egindako jauzia zen, nolahi ere, eta baita helburua erdietsi ere. Horrela ikusi genuen, behintzat, dagoeneko entzutez bakarrik ezagutzen dugun bildots eta bestelako abereen zikiratze jarduna zer demontre ote den: ikaraz eta harriduraz aldi berean. Zerbait ikasi genuela, alegia, Dionisio Txoperenaren hitzak eta ekintzak ezagutzen. Ez da gutxi. Gaur egun, zer esanik ez.

ETB1



Koadrilek tarte berezia izango dute 'Bexamela' saioan asteartero, gaurtik hasita

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Gonbidatu anonimoak eta koadrilak izango dira *Bexamela* programako protagonistak asteartero (22:10ean). Estitxu Fernandezek zuzenean aurkeztuko du *talk-show* formatuko saioa, udaberriko lehenengo ediziotan egin zuen moduan. Adin guztietako pertsonen euren txokoa izango dute *Bexamela*-n, euren esperientziak konta ditzaten. Horrez gain, euren idoloa ezagutu nahi dutenak ere bilduko dira platoon. Futbol jokalaria, aurkezleak, pilotariak eta aktoreak ezagutu eta euren ametsa gauzatzeko aukera izango dute gazteek.

Gaurko saioan ezusteko ugari izango dira, eta Triki ta Ke taldeak joko du. Arku tiroketan dabil-tzan lagunak bilduko dira Fernandezekin. Hiru koadrilaren bideoak izango dira ikusgai, eta horietako bat platora joango da. Azkenik, dei gehien jasotzen duen koadrilak landetxe batean asteburua pasatzeko aukera izango du. Astero 60 lagun egongo dira publikoan.

EUSKADI IRRATIA. 'Taxi!! Xanti eta konpainia' irrati-nobela emango dute goizero, 11:00etan



Iñaki Beraetxe aktoreari bururatu zitzaion 'Taxi!! Xanti eta konpainia' irrati-nobela egiteko ideia.

IÑAKI BERAETXE

'Taxi!! Xanti eta konpainia' irrati-nobelaren ideien sortzailea

«Baserri mundua eta hirikoa elkartuko zituen espazio aproposa iruditu zitzaidan taxiarena»

«Espero dut irrati-nobela hau jendearen gustukoa izatea eta aurrera joatea; gu ilusioz ari gara lanean»

nobela, eta lehendabizi aurre ekoizpen prozesu bat egin dute. Ekainean eta uztailan hasi zituzten grabaketak, eta abuztuko etenaldiaren ondoren irailean ekin diete berriro grabaketei. Taxiaren etorkizuna entzuleen erantzunaren arabera izango dela esan digu Beraetxek. «Espero dut irrati-nobela jendearen gustukoa izatea eta aurrera joatea. Nik behintzat ilusio puntu bat badut, eta oso gustuko lana dut», dio aktore gipuzkoarrak.

Atal bakoitzak bost eta zazpi minutu arteko iraupena du

Taxi!! Xanti eta konpainia-ren argumentuari dagokionez, Xanti taxistak entzuten dituen kontuak dira ardatza. Entzuten eta ikusten duenaz gain, berari gertatzen zaizkion pasadizoek irrati-nobela baterako adina gai ematen dute. Horregatik jarri dute mikrofonoa Xantiren taxian, baita lankideekin egunero elkartzen den geltokian eta indarberritzeko kafea jartzen dien Kristinaren tabernan. Gainerako pertsonaiak Pruden eta Olatz taxi berean elkarri turnoa egin dioten aita-alabak, Pako taxista euskaldun berria, Xantiren ama Serafina eta Ines, Xantiren ametsetako ahotza. Irrati-nobelako atal bakoitzak bost eta zazpi minutu arteko iraupena du, eta astelehenetik ostiralera entzun ahal izango dira datozen hilabeteetan, *Goizean behin* irratsaioaren barnean.

Taxian kontu kontari

Iñaki Beraetxek eta Arantxa Iturbek zuzendu dute lana, eta REC etxeak ekoitzi du

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

ETBko ikus-entzuleek *Goenkale* telesaileko Mikel bezala ezagutzen dute Iñaki Beraetxe, baina aktore lanaz gain hainbat proiektuetan murgildu da azkeneko hilabeteetan. *Osaba Jaxinto* izenburuko film laburraren gidaria idatzi eta grabaketa zuzendu berri du, euskal aktore ezagunekin. Duela urte batzuk Eneko Olasagastiren zuzendaritzapean *Philippe Malonyren kasu ikaragarriak* irrati-nobelan hartu zuen parte, eta ordutik irrati-rako lanen bat egiteko gogoz zegoen. Hala, atzo Euskadi

Irratian estreinatu zen *Taxi!! Xanti eta konpainia* irrati-nobela Iñaki Beraetxek berak eta Arantxa Iturbek zuzendu dute.

«Hainbat ideia pentsatu nituen, Euskadi Irratirako irrati-nobela bat egiteko. Taxistarena espazio sonoroak argi edukiko zituen istorio bat zen; baserri mundua eta hirikoa elkartuko zituena. Pertsonaia batzuen azterketa psikologikoa egin nuen ondoren», azaldu dio EGUNKARIARI Iñaki Beraetxek.

Ekainean hasi zituzten grabaketak euskal aktoreekin

Komedia kutsua bilatzen saiatu

direla dio irrati-nobelaren sortzaileak. «Gidoi guztiak Arantxa Iturbernak dira. Aktoreekin eta taldekideekin lanean biak aritzen gara, eta orain arteko grabaketetan barre batzuk egin ditugu», dio Beraetxek.

Taxi!! Xanti eta konpainia-ko pertsonaiei ahotza jarri dieten artean honakoak daude: Ane Aseginolaza, Maider Egues, Asier Hormaza, Antton Mendiluze, Koldo Bereziartua, Aintzane Gamiz, Juan Bautista Aldasoro eta Antton Mendizabal. «Pertsonaia finko batzuk badaude, eta bestetik taxira sartzen diren bezeroak daude, noizean behin azaltzen direnak», dio Beraetxek. Xantiren pertsonaia, berriz, Iñaki Illarretak betetzen du.

REC etxeak ekoitzi du irrati-